

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

**Europaren eraikitze prozesua: informazioa,
komunikazioa eta EAEko herritarrak**

***El proceso de construcción europea: información,
comunicación y ciudadanía de la CAPV***

2007ko apirila

Abril 2007



http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1	C - HERRITARRAK EUROPAKO GAJETAN SARTZEKO ESFORTZUAK / ESFUERZOS POR INVOLUCRAR A LA CIUDADANÍA EN LOS ASUNTOS EUROPEOS	19
LABURPENA / SÍNTESIS	3	• Europako erakundearen esfortzuak / Esfuerzos de las instituciones europeas..	20
A - EUROPAREKIKO LOTURA ETA INTERESA / APEGO E INTERÉS HACIA EUROPA	5	• Eusko Jaurlaritzaren esfortzuak / Esfuerzos del Gobierno Vasco	21
• Europarekiko lotura / Apego por Europa.....	6	• Komunikabideen esfortzuak / Esfuerzos de los medios de comunicación	22
• Euskal Herriko eta Europako gaiekiko interesa / Interés por los asuntos del País Vasco y de Europa	8	• Herritarren esfortzuak / Esfuerzos de la ciudadanía.....	23
• Europari buruzko albisteei jarritako arreta / Atención prestada a las noticias sobre Europa	10	D - EUROPAR BATASUNAREN TRATAMENDUA KOMUNIKABIDEETAN / EL TRATAMIENTO DE LA UNIÓN EUROPEA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN	24
B - EUROPARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA / CONOCIMIENTO E INFORMACIÓN SOBRE EUROPA	11	• Zenbat hitz egiten da EBz komunikabideetan / Cuánto se habla de la UE en los medios de comunicación.....	25
• EB osatzen duten herrialdeen kopuruaren ezagutza / Conocimiento de cuántos países forman la UE	12	• Nola hitz egiten da EBz komunikabideetan / Cómo se habla de la UE en los medios de comunicación.....	26
• Espainia EEEen sartu zen urtearen ezagutza / Conocimiento del año en que España entró en la CEE	13	• Telebistan emandako tratamendua / Tratamiento en la televisión	27
• EEE sortu zen urtearen ezagutza / Conocimiento del año en que se creó la CEE.....	14	• Irratian emandako tratamendua / Tratamiento en la radio.....	28
• EBko erakunde eta organoen ezagutza / Conocimiento de instituciones y órganos de la UE	15	• Prentsan emandako tratamendua / Tratamiento en la prensa.....	29
• EAEko eta EBko politika eta erakundeei buruzko informazio maila / Nivel de información sobre políticas e instituciones de la CAPV y de la UE.....	16	ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	30
• EBri buruzko informazio iturriak / Fuentes de información sobre la UE.....	18		

Sarrera / Introducción

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Txosten honen helburua **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) biztanleek Europar Batasunari (EB) buruz dituzten iritziak eta jarrerak ezagutzeko da**. Horretarako txostenean hainbat alderdi aztertu dira: Europarekiko lotura eta interesa, EBri buruz dugun ezagutza eta informazioa, herritarrak Europako gaietan gehiago sartzeko beharra, baita komunikabideek EBri lotutako gaien emandako tratamenduaren pertzepzioa ere.

Lan honetako emaitzak, **2007ko apirilean**, telefono bidezko banakako elkarrizketetan, galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, egindako galderetatik datoz.

Ikerketaren ikuspegia, deskribatzailea izateaz gain, konparatzailea eta ebolutiboa ere bada; honela, aurreko urteekiko bilakaera kontuan hartu da (eta horretarako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak berak aurretik egindako ikerketen emaitzak hartu dira), eta hainbat kasutan, Europako beste herrialdeekiko konparazioa ere egin da (horretarako Europako Batzordearen aginduz egindako 57., 64., 65. eta 66. Eurobarometroetan eta "The future of Europe" izeneko txostenean publiko egindako datuak hartu dira *).

* Nahiz eta kasu askotan Errumania eta Bulgariako datuak izan (estatu hauek 2007ko urtarrilaren 1ean sartu ziren EBn), ikerketetan aurkeztutako Europako batezbestekoa aurtengo urtarrila arte EB osatzen zuten 25 herrialdeei dagokie.

El objetivo del presente informe es **conocer las opiniones y actitudes de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) en relación a la Unión Europea (UE)**. Para ello el informe analiza diferentes aspectos tales como el apego e interés hacia Europa, el conocimiento e información que tenemos sobre la UE, la necesidad de involucrar más a la ciudadanía en los asuntos europeos, así como la percepción del tratamiento que los medios de comunicación dan a los temas relacionados con la UE.

Los resultados de este trabajo proceden de las preguntas realizadas a través de entrevista telefónica individual, mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizado en **abril de 2007**.

El enfoque de estudio, además de descriptivo, es comparativo y evolutivo; así, se ha tenido en cuenta la evolución sentida respecto a años precedentes (tomando como referencia datos anteriores del Gabinete de Prospección Sociológica) y, en algunos casos, la comparación respecto a otros países europeos (para ello se parte de los datos hechos públicos en los Eurobarómetros 57, 64, 65 y 66, así como en otro informe titulado "The future of Europe", realizados todos ellos por encargo de la Comisión Europea *).

* Aunque en muchos casos hay datos de Rumania y Bulgaria (estados incorporados a la UE el 1 de enero de 2007), la media europea presentada en los estudios corresponde a los 25 países que integran la UE hasta enero de este año.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta jarrerazkoen arabera** ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagaiak ondokoak dira (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65*.
- Ikasketa maila: *lehen mailakoak edo baxuagoak (batere ez, lehen mailakoak baino baxuagoak, Oinarrizko batxilergoa, OHO, DBH), bigarren mailakoak edo lanbide heziketak (LH, goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI), goi-mailakoak (diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, graduondokoak, e.a.)*.
- Europako gaiekiko interesa: *oso+nahikoa interesatuta, ez oso+batere interesaturik ez*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y actitudinales**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Sexo: *varón y mujer*.
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65*.
- Nivel de estudios: *primarios o inferiores* (ninguno, menos que primarios, primarios, bachiller elemental, EGB, ESO), *secundarios o profesionales* (FP, bachiller superior, REM, BUP, COU), *superiores* (diplomaturas, licenciaturas, doctorados, postgrados, etc).
- Interés por los asuntos europeos: *muy+bastante interesado/a, no muy+nada interesado/a*.

Laburpena / *Síntesis*

Herritarren erdiek Europarekin lotura handia edo nahikoa sentitzen dutela diote. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) adierazitako lotura hori Espainiako Estatuan edota Europan, batez beste, erakutsitakoak baino baxuagoa da.

Europako gaietan edo arazoetan interes handia edo nahikoa duten herritarrak ere erdiak dira; hala ere, interes hori (Europar Batasuneko beste herrialdeetan gertatzen den bezala) herrialdeko (gure kasuan, Euskal Herriko) barne gai edo arazoekikoa baino baxuagoa da.

Horregatik, ez da harrizkoa Europar Batasuneko politika eta erakundeei buruz herritarrek adierazitako informazio maila (4,2ko batezbestekoa 1etik 10erako eskalan) Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde eta politikari buruz adierazitakoa (5,8) baino baxuagoa izatea. Oro har, Europar Batasunari (EBri) buruzko kontuen ezagutza nahikoa eskasa da: gutxi dira gaur egun Europar Batasuna 27 herrialdek osatzen dutela dakiten edo gogoratzen duten EAEko herritarrak (%7), Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan (EEEn) 1986an sartu zela dakitenak (%9) edota EEE 1957an sortu zela dakitenak (%5). Gainera, inkestatuei Europako erakunde edo organoren bat berez (hau da, inolako erantzunik iradoki gabe) aipatzeko eskatu zaienean, %14k Europako Parlamentua aipatu dute, baina gainontzeko erakunde edo organo bakoitza %5ek baino gutxiagok aipatu dituzte.

Edozelan ere, komunikabideetan agertzen diren Europar Batasunari buruzko albisteetan arreta handia edo nahikoa jartzen dutela diote herritar gehienek.

Oro har, herritarren iritziz telebistan gutxiegi hitz egiten da EBz eta egiten denean objektiboki izaten da; irratian eta prentsan, aldiz, nahikoa hitz egiten da eta hitz egiteko modua objektiboa da, gehienbat.

EBri buruzko informazioa nahi edo behar izanez gero, herritarren erdiek internetera joko lukete, dezente gutxiago dira ohiko komunikabideetara (prentsa, telebista eta irratia) joko luketenak eta oso gutxi beste iturrietan, hala nola, Europari buruzko informazio bulegoetan, berau bilatuko luketenak.

Herritar gehienek ustez esfortzu handiagoak egin beharko lirake herritarrak Europako gaietan gehiago sartzeko, eta esfortzu horiek Europako erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, komunikabideek edota herritarrek beraiek egin beharko lituzkete. Eta EBn, oro har, esfortzu horiek herrialdeetako gobernuek egin behar dituztela uste dutenak, erantzukizun hori Europako erakundeen eskuetan uzten dutenak baino apur bat gehiago badira ere, EAEn kontrako gertatzen da: gehiago dira erantzukizun hori Europako erakundeei esleitzen dietenak, Eusko Jaurlaritzari ematen dietenak baino.

La mitad de las y los ciudadanos dicen sentir mucho o bastante apego por Europa. El apego expresado en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) es inferior al señalado en el Estado Español o en la media europea.

También alcanzan la mitad las y los ciudadanos que señalan tener mucho o bastante interés por los asuntos europeos, si bien este interés (al igual que ocurre en el resto de países de la Unión Europea) es inferior al sentido por los asuntos internos del país, en este caso, del País Vasco.

Por ello no es de extrañar que el nivel de información manifestado por la ciudadanía sobre las políticas e instituciones de la Unión Europea (media de 4,2 en una escala de 1 a 10) sea inferior al expresado en relación a las instituciones y políticas de la Comunidad Autónoma del País Vasco (5,8). En general, el conocimiento de cuestiones relativas a la Unión Europea (UE) es bastante bajo: son pocos los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV que saben o recuerdan que actualmente la Unión Europea está formada por 27 estados (7%), que España entró en la Comunidad Económica Europea –CEE– (9%) o que la CEE se creó en 1957 (5%). Además, al pedir a las y los encuestados que mencionaran espontáneamente (es decir, sin sugerir ninguna respuesta) alguna institución u órgano europeo, un 14% ha señalado el Parlamento Europeo, pero el resto de instituciones u órganos han sido mencionados por menos del 5% cada uno.

En cualquier caso, la mayoría de las ciudadanas y ciudadanos dicen prestar mucha o alguna atención a las noticias sobre la Unión Europea que aparecen en los medios de comunicación.

En general, la ciudadanía cree que en la televisión se habla demasiado poco de la UE y que cuando habla lo hace de forma objetiva, mientras que la radio y la prensa hablan lo suficiente y de forma principalmente objetiva.

En caso de querer o necesitar información sobre la UE, la mitad de la ciudadanía recurriría a Internet, son bastantes menos quienes acudirían a los medios de comunicación tradicionales (prensa, televisión y radio) y muy pocos quienes la buscarían en otras fuentes, como las oficinas de información europea.

La mayoría de la ciudadanía cree que deberían hacerse mayores esfuerzos por involucrar más a las y los ciudadanos en los asuntos europeos, esfuerzos tanto por parte de las instituciones europeas, como del Gobierno Vasco, como de los medios de comunicación o de los propios ciudadanos y ciudadanas. Y, si bien en la UE, en general, son algunos más quienes creen que el Gobierno del país debe hacer dichos esfuerzos, que quienes delegan esta responsabilidad en las instituciones europeas, en la CAPV ocurre lo contrario: son más quienes atribuyen dicha responsabilidad a las instituciones europeas que al Gobierno Vasco.

A.- Europarekiko lotura eta interesa / *Apego e interés hacia Europa*

- **Europarekiko lotura / *Apego por Europa***
- **Euskal Herriko eta Europako gaiekiko interesa / *Interés en los asuntos del País Vasco y de Europa***
- **Europari buruzko albisteei jarritako arreta / *Atención prestada a las noticias sobre Europa***

Europarekiko lotura eta interesa / Apego e interés hacia Europa

Europarekiko lotura / Apego por Europa

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA ETA BILAKAERA / TOTALES, COLECTIVOS Y EVOLUCIÓN)

Esango al didazu nolako lotura sentitzen duzun Europarekin? / Dígame ¿hasta qué punto siente apego por Europa?


	2007ko APirilA Abril 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	Oso+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	EZ OSO+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
LOTURA HANDIA / MUCHO APEGO.....	11	14	8	13	8	9	16	7	11	16	20	1
NAHIKOA LOTURA / BASTANTE APEGO.....	38	38	37	35	33	46	36	39	40	32	52	24
LOTURA TXIKIA / POCO APEGO.....	31	28	34	38	41	25	13	22	34	42	17	47
INOLAKO LOTURARIK EZ / NINGÚN APEGO.....	13	13	13	10	13	11	19	20	8	7	6	19
Ed-Ee / Ns-Nc.....	8	7	8	5	5	8	15	11	6	3	5	8
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herritarren erdiek, gutxi gorabehera (%49k), Europarekin lotura handia edo nahikoa lotura sentitzen dutela diote. Lotura handia edo nahikoa sentitzen dutenak kontuan hartuta ikus dezakegu 2007an adierazitako lotura 2004an, baita 2006an ere, azaldutakoaren antzekoa dela, baina 2001ean erakutsitakoa baino txikiagoa dela. Hala ere, loturaren indarrari erreparatuz gero (bakarrik lotura handia dutenak kontuan hartuz), lotura hori 2004tik ere jaitsi dela esan daiteke.

Berrito ere, lotura handia edo nahikoa dutenak kontuan hartuz, Europarekiko lotura hori ondoko taldeetan apur bat handiagoa dela dakusagu: gizonezkoen artean, 45 urtetik gorakoen artean eta, batez ere, Europako gaietan edo arazoe-tan oso edo nahikoa interesatuta daudela diotenen artean.

Alrededor de la mitad de la ciudadanía (49%) dice sentir mucho o bastante apego por Europa. Teniendo en cuenta a quienes dicen sentir mucho o bastante apego, vemos que el apego expresado en 2007 es similar al manifestado en 2004 y 2006 pero menor al señalado en 2001. Sin embargo, si atendemos a la intensidad del apego (teniendo en cuenta únicamente a quienes sienten mucho apego) puede decirse que dicho apego también ha descendido respecto a 2004.

Atendiendo nuevamente a quienes dicen sentir mucho o bastante apego, observamos que este apego por Europa es algo mayor entre los varones, entre quienes tienen más de 45 años y, especialmente, entre quienes dicen estar muy o bastante interesados en los asuntos europeos.




- Ed-Ee / Ns-Nc
- Inolako loturarik ez / Ningún apego
- Lotura txikia / Poco apego
- Nahikoa lotura / Bastante apego
- Lotura handia / Mucho apego

E Europarekiko lotura eta interesa / Apego e interés hacia Europa

Europarekiko lotura / Apego por Europa

(EUROPAREKIKO ALDERAKETA / COMPARACIÓN CON EUROPA)



EAEn adierazitako Europarekiko lotura Europar Batasunaren batzbestekoa baino de-
zente baxuagoa da. Espainiar Estatuan adierazitakoa baino txikiagoa da ere bai.

El apego por Europa manifestado en la CAPV es bastante inferior a la media europea. Tam-
bién es inferior al declarado a nivel del Estado Español.

Europarekiko lotura eta interesa / Apego e interés hacia Europa

Euskal Herriko eta Europako gaiekiko interesa / Interés por los asuntos del País Vasco y de Europa

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Eta oso interesatuta zaude, nahikoa interesatuta, ez oso interesatuta edo ez zaude batere interesaturik...? / ¿Y está Ud. muy interesado/a, bastante interesado/a, no muy interesado/a o nada interesado/a en...?

	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	Oso+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	Ez oso+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
EUROPAKO GAJETAN EDO ARAZOETAN? / EN LOS ASUNTOS EUROPEOS?												
Oso interesatuta / Muy interesado/a.....	8	11	5	10	7	10	6	6	9	12	17	0
Nahikoa interesatuta / Bastante interesado/a.....	42	42	43	36	43	48	41	36	45	48	83	0
Ez oso interesatuta / No muy interesado/a.....	32	29	35	38	39	24	25	33	30	33	0	70
Batere interesaturik ez / Nada interesado/a.....	14	15	13	15	10	13	20	20	13	5	0	30
Ed-Ee / Ns-Nc.....	3	3	4	1	1	5	8	6	2	2	0	0
ETA EUSKAL HERRIKO GAJETAN EDO ARAZOETAN? / ¿Y EN LOS ASUNTOS DEL PAÍS VASCO?												
Oso interesatuta / Muy interesado/a.....	45	41	49	42	52	45	37	34	49	56	58	33
Nahikoa interesatuta / Bastante interesado/a.....	42	42	42	45	40	42	43	45	43	36	40	44
Ez oso interesatuta / No muy interesado/a.....	8	10	6	11	6	9	7	13	5	5	1	17
Batere interesaturik ez / Nada interesado/a.....	4	6	1	2	3	4	7	5	3	2	2	6
Ed-Ee / Ns-Nc.....	1	1	2	0	0	1	5	3	0	0	0	1
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EAEko herritarren %87k Euskal Herriko gaietan oso edo nahikoa interesatuta daudela diote. Zifra hori %50era jaitsi da Europako gaietan interesatuta daudenak zenbatu ditugunean.

Europako gaietan interesatuta daudenen artean, %17k interes handia adierazi dute eta %83k nahikoa interes. Europako arazoekiko interesa handitzen da inkestatuena ikasketa maila igo ahala.

Europako gaiekiko interesa adierazi dutenak Euskal Herriko arazoetan ere interes handien jartzen dutenak dira.

El 87% de la ciudadanía vasca dice estar muy o bastante interesada en los asuntos del País Vasco. Esta cifra desciende al 50% cuando contamos quiénes están interesados en los asuntos europeos.

Entre quienes dicen estar interesados en los asuntos europeos, un 17% muestra mucho interés y un 83% bastante interés. El interés por los asuntos europeos se incrementa a medida que aumenta el nivel de estudios de las y los encuestados.

Son precisamente quienes están interesados en los asuntos europeos quienes también manifiestan mayor interés por los asuntos del País Vasco.

Europarekiko lotura eta interesa / Apego e interés hacia Europa

Euskal Herriko eta Europako gaiekiko interesa / Interés por los asuntos del País Vasco y de Europa

(EUROPAREKIKO ALDERAKETA / COMPARACIÓN CON EUROPA)

Europako herrialde guztietan herritarrek barne gaietan edo arazoetan adierazitako interesa Europakoetan adierazitakoa baino handiagoa da.


Dena dela, EAEko herritarrek Europako batezbestekoak baino interes handiagoa adierazi dute beren herrialdeko barne gaietan.

Europako gaiekiko interesa ere apur bat handiagoa da EAEn EBn, batez beste, baino.

En todos los países europeos el interés de sus ciudadanos por los asuntos domésticos supera al interés por los asuntos europeos.

En cualquier caso, las y los ciudadanos de la CAPV muestran bastante mayor interés que la media europea por los asuntos internos de su país.

El interés por los asuntos europeos también es ligeramente superior en la CAPV a la media de la UE.



* Europako Batzordea (2006): "The future of Europe", 2006ko otsaila-martxo. / Comisión Europea (2006): "The future of Europe", febrero-marzo 2006.

** Interesatua: oso interesatua + nahikoa interesatua / Interesado/a: muy interesado/a + bastante interesado/a

Europarekiko lotura eta interesa / Apego e interés hacia Europa

Europari buruzko albisteei jarritako arreta / Atención prestada a las noticias sobre Europa

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA ETA EUROPAREKIKO ALDERAKETA / TOTALES, POR COLECTIVOS Y COMPARACIÓN CON EUROPA)

Oro har, bai telebista, irratia edota egunkariaren bidez, zenbateko arreta jartzen duzu Europar Batasunari buruzko albisteetan: arreta handia, nolabaiteko arreta edo batere arretarik ez? / En general, sea a través de la televisión, de la radio o del periódico, ¿Ud. cuánta atención suele prestar a las noticias sobre la Unión Europea: mucha, alguna o ninguna atención?


	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	OSO+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	Ez oso+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
ARRETA HANDIA / MUCHA ATENCIÓN.....	17	22	11	7	17	22	20	17	16	18	27	6
NOLABAITEKO ARRETA / ALGUNA ATENCIÓN	66	58	74	76	69	62	52	57	68	76	66	66
BATERE ARRETARIK EZ / NINGUNA ATENCIÓN.....	13	13	14	17	11	9	19	22	11	2	3	23
Ed-Ee / Ns-Nc.....	4	7	1	0	2	6	10	4	4	4	4	5
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EAEko herritarren %17k arreta handia jartzen dute komunikabideetan agertzen diren Europar Batasunari buruzko albisteetan, %66k nolabaiteko arreta jartzen dute eta %13k batere arretarik ez. Europako gaietan interesatuta daudenek jartzen dute arreta handiena, hala ere, bakarrik horien %27k diote arreta handia jartzen dutela.

2002ko Europako datuekin konparatuz gero (orduan 15 herrialdek osatzen zuten EB), ikus dezakegu EBri buruzko albisteetan arreta handia jartzen dutenen kopurua Europako batezbestekoaren antzekoa dela, baina EAEn gehiago direla nolabaiteko arreta jartzen dutenak eta gutxiago ez dutela inolako arretarik jartzen dietenak.

Un 17% de las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV presta mucha atención a las noticias sobre la Unión Europea que aparecen en los medios de comunicación; un 66% les presta alguna atención y un 13% ninguna atención. Quienes declaran estar interesados en los asuntos europeos son quienes prestan mayor atención, si bien únicamente una cuarta parte de los mismos (27%) les presta mucha atención.

Comparando con datos europeos de 2002 (cuando la UE estaba compuesta por 15 países) vemos que si bien el número de quienes dicen prestar mucha atención a las noticias sobre la UE es similar a la media europea, en la CAPV son más quienes señalan prestar alguna atención y menos quienes dicen que no prestan ninguna atención.



B.- Europari buruzko ezagutza eta informazioa / Conocimiento e información sobre Europa

- **EB osatzen duten herrialdeen kopuruaren ezagutza /
Conocimiento de cuántos países forman la UE**
- **Espainia EEE n sartu zen urtearen ezagutza /
Conocimiento del año en que España entró en la CEE**
- **EEE sortu zen urtearen ezagutza / Conocimiento del año en que se creó la CEE**
- **EBko erakunde eta organoen ezagutza /
Conocimiento de instituciones y órganos de la UE**
- **EAEko eta EBko politika eta erakundeei buruzko informazio maila /
Nivel de información sobre políticas e instituciones de la CAPV y de la UE**
- **EBri buruzko informazio iturriak / Fuentes de información sobre la UE**

Europari buruzko ezagutza eta informazioa / *Conocimiento e información sobre Europa* EB osatzen duten herrialdeen kopuruaren ezagutza / *Conocimiento de cuántos países forman la UE*

(GUZTIZKOAK, KOLEKTIBOKA ETA BILAKAERA / *TOTALES, POR COLECTIVOS Y EVOLUCIÓN*)

Badakizu zenbat herrialdek osatzen duten gaur egun Europar Batasuna? / ¿Sabe cuántos países forman actualmente la Unión Europea? *

	2007ko APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	OSO+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	EZ OSO+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
27k / 27.....	7	10	3	10	4	5	8	6	5	10	9	3
25ek / 25.....	13	18	8	17	12	12	11	9	17	14	17	9
15ek / 15.....	5	4	6	4	7	2	5	5	5	4	6	4
BESTE ZIFRA BAT / OTRA CIFRA	19	26	11	13	17	26	20	18	25	15	22	16
Ed-Ee / Ns-Nc.....	57	42	73	56	60	55	56	63	47	57	46	68
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100


* GALDERA IREKIA. INKESTATUEI EZ ZITZAIEN ERANTZUN AUKERARIK EMAN / PREGUNTA ABIERTA. A LAS Y LOS ENCUESTADOS NO SE LES DIÓ NINGUNA OPCIÓN DE RESPUESTA.

Europar Batasunaren zabalkuntza izan ondoren herritar gutxiagok dakite zenbat herrialdek osatzen duten EB. 2007ko apirillean EAEko herritarren %7k bakarrik dakite gaur egun EB 27 herrialdek osatzen dutela. %13k oraindik 25 herrialdek osatzen dutela pentsatzen dute eta %5ek 15 herrialdek osatzen dutela. Beste %19k beste zifra batzuk aipatu dituzte eta erdiek baino zertxobait gehiagok (%57k) argi eta garbi esan dute ez dakitela zenbat herrialdek osatzen duten EB.

EB 27 herrialdek osatzen dutela dakitenak ez dira %10 baino gehiago inolako taldetan.

Con la ampliación de la UE ha descendido el número de ciudadanos que conocen cuántos países componen la Unión Europea. En abril de 2007 tan sólo un 7% de las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV saben que la UE actualmente está compuesta por 27 países. Un 13% sigue pensando que está formada por 25 países y un 5% por 15 países. Otro 19% de las y los ciudadanos menciona otras cifras y algo más de la mitad (57%) reconoce abiertamente que no sabe cuántos países componen la UE.

En ningún colectivo son más del 10% quienes saben que la UE está compuesta por 27 países.



Europari buruzko ezagutza eta informazioa / *Conocimiento e información sobre Europa* Espainia EEEn sartu zen urtearen ezagutza / *Conocimiento del año en que España entró en la CEE* (GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS*)

Eta badakizu zein urtetan sartu zen Espainia Europako Komunitate Ekonomikoan, hau da, Europako Ekonomia Erkidegoan? / ¿Y sabe Ud. en que año entró España en la Comunidad Económica Europea? *

	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	OSO+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	EZ OSO+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
1986AN / En 1986	9	14	5	22	9	6	0	6	11	15	12	7
BESTE URTE BATEAN / OTRO AÑO	17	26	8	17	14	20	20	15	22	18	19	16
ED-EE / Ns-Nc	73	60	87	61	77	74	80	79	67	68	69	77
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100



* GALDERA IREKIA. INKESTATUEI EZ ZITAZIEN ERANTZUN AUKERARIK EMAN / PREGUNTA ABIERTA. A LAS Y LOS ENCUESTADOS NO SE LES DIÓ NINGUNA OPCIÓN DE RESPUESTA.

Bakarrik herritarren %9k gogoratzen dute Espainia 1986an sartu zela Europako Ekonomia Erkidegoan. %17k data okerra eman dute eta gainontzeko %73k ez dakitela edo ez dutela data hori gogoratzen esan dute.

Espainia EEEn sartu zen data zuzena (1986) gehien aipatu dutenak gazteak izan dira (ia horien laurden batek).

Tan sólo un 9% de la ciudadanía recuerda que España entró en 1986 en la Comunidad Económica Europea. Un 17% da una fecha equivocada y el 73% restante dice no saber o no recordar dicha fecha.

Quienes más señalan la fecha correcta de entrada de España en la CEE (1986) son las y los jóvenes (casi una cuarta parte de los mismos).





Europari buruzko ezagutza eta informazioa / *Conocimiento e información sobre Europa* EEE sortu zen urtearen ezagutza / *Conocimiento del año en que se creó la CEE* (GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / *TOTALES Y POR COLECTIVOS*)

Eta badakizu zein urtetan sortu zen Europako Komunitate Ekonomikoa, hau da, Europako Ekonomia Erkidegoa? / ¿Y sabe Ud. en que año se creó la Comunidad Económica Europea? *

	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	Oso+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	Ez oso+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
1957AN / EN 1957	5	8	2	5	7	5	3	4	5	8	6	4
BESTE URTE BATEAN / OTRO AÑO	13	22	3	21	9	14	7	6	16	23	15	11
Ed-Ee / Ns-Nc	82	70	95	74	84	81	90	90	79	69	79	85
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* GALDERA IREKIA. INKESTAEUI EZ ZITZAIEN ERANTZUN AUKERARIK EMAN / PREGUNTA ABIERTA. A LAS Y LOS ENCUESTADOS NO SE LES DIÓ NINGUNA OPCIÓN DE RESPUESTA.



- Aurten EEE sortu zela 50 urte badira ere, hori herritarren %5ek baka- rrik gogoratzen dute. %13k beste urte batzuk aipatu dituzte eta %82k ez daki- tela edo ez dutela gogoratzen esan dute.
- EEE 1957an sortu zela gogoratzen dutenak ez dira %10era heldu talde batean ere.

- Pese a que este año se cumplen 50 años de la creación de la CEE, esto sólo es recordado por un 5% de las y los ciudadanos. Un 13% señala otras fechas y el 82% dice no saberlo o no recordarlo.
- Quienes recuerdan que la CEE se creó en 1957 no alcanzan el 10% en ningún colectivo.

Europari buruzko ezagutza eta informazioa / Conocimiento e información sobre Europa

EBko erakunde eta organoen ezagutza / Conocimiento de instituciones y órganos de la UE

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Ezagutzen duzu edo zerbait entzun duzu Europar Batasuneko erakunde edo organoren bati buruz? Zein edo zeintzuk ezagutzen dituzu? /

¿Conoce o ha oído hablar Ud. de alguna institución u órgano de la Unión Europea? ¿Cuál o cuáles? *

ERANTZUN AUKERA BAKOITZA BEREZ AIPATU DUTEN BIZTANLEEN EHUNEKOAK / PORCENTAJE DE POBLACIÓN QUE MENCIONA ESPONTÁNEAMENTE CADA RESPUESTA	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	Oso+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	Ez oso+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
EUROPAKO PARLAMENTUA / EL PARLAMENTO EUROPEO.....	14	19	8	11	17	18	7	4	21	24	18	10
EUROPAKO ERKIDEGOETAKO JUSTIZIA AUZITEGIA / EL TRIBUNAL DE JUSTICIA DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS.....	4	4	3	5	5	3	0	1	2	11	5	2
EUROPAKO BATZORDEA / LA COMISIÓN EUROPEA.....	3	5	1	3	5	2	2	2	0	12	6	1
EUROPAR BATASUNeko MINISTRO KONTSEILUA / EL CONSEJO DE MINISTROS DE LA UE.....	3	3	3	5	3	4	0	0	2	9	3	3
ESKUALDEETAKO KOMITEA / EL COMITÉ DE LAS REGIONES	1	1	0	1	0	1	0	0	1	1	1	1
BESTEAK / OTROS	8	9	7	9	8	9	5	3	10	14	9	8
BAT ERE EZ / NINGUNO	39	37	40	41	34	37	47	50	31	29	35	42
Ed-Ee / NS-NC.....	35	29	42	33	35	33	41	40	37	24	32	39

* GALDERA IREKIA. INKESTAUETI EZ ZITAZIEN ERANTZUN AUKERARIK EMAN. ERANTZUN GUZTIEN BATUKETA EHUN BAINO HANDIAGO DA, ERANTZUN BAT BAINO GEHIAGO EMAN AHAL ZIRELAKO. / PREGUNTA ABIERTA. A LAS Y LOS ENCUESTADOS NO SE LES DIÓ NINGUNA OPCIÓN DE RESPUESTA. LA SUMA DE RESPUESTAS ES SUPERIOR A 100, DADO QUE SE PODÍA DAR MÁS DE UNA RESPUESTA.

Europako erakunde edo organorik ezagunena, edo berez gogoratuena, behintzat, Europako Parlamentua da (EAEko herritarren %14k aipatu baitute). Eskualdeetako komitea, Euskadik presentzia zuzena duen organo bakarra, %1ek soilik aipatu du.

Herritarren %39k argi eta garbi esan dute ez dutela Europako erakunde edo organorik ezagutzen eta beste %35ek galdera egindako momentuan ez dakitela edo ez dutela gogoratu adierazi dute.

Goi-mailako ikasketak dituztenek erakunde eta organo gehien aipatu dituzte, Europako gaiekiko interesa dutenek baino are gehiago.

La institución u órgano europeo más conocido o, al menos, el más recordado de forma espontánea, es el Parlamento Europeo (mencionado por un 14% de las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV). El Comité de las Regiones, único órgano en el que el País Vasco tiene presencia directa, apenas es mencionado por un 1%.

Un 39% de las y los ciudadanos señalan claramente que no conocen ningún órgano o institución europea y otro 35% dice no saber o no recordar en el momento de ser preguntados.

Quienes poseen estudios superiores son quienes más señalan distintos órganos o instituciones, más aún que quienes dicen estar interesados en los asuntos europeos.

Europari buruzko ezagutza eta informazioa / Conocimiento e información sobre Europa**EAEko eta EBko politika eta erakundeei buruzko informazio maila / Nivel de información sobre políticas e instituciones de la CAPV y de la UE**

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

1etik 10era doan eskala batean, zein neurritan zaude informatuta Euskadiko Komunitate Autonomoaren politikei, erakundeei eta abarri buruz? Eta Europar Batasunaren politika, erakunde eta organismoen buruz? / En una escala de 1 a 10, ¿hasta qué punto se siente informado/a sobre las políticas, instituciones, etc de la Comunidad Autónoma Vasca? ¿Y sobre las políticas, instituciones y organismos de la Unión Europea?

	2007KO APIRILA ABRIL 2007	SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK / GRUPOS DE EDAD				IKASKETA MAILA / NIVEL DE ESTUDIOS			EUROPAKO GAIEKIKO INTERESA / INTERÉS POR LOS ASUNTOS EUROPEOS	
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	LEHEN MAILAKOAK EDO BAXUAGOAK PRIMARIOS O INFERIORES	BIGARREN MAILAKOAK EDO LANBIDE HEZIKETAK SECUNDARIOS O PROFESIONALES	GOI-MAILAKOAK SUPERIORES	Oso+NAHIKOA INTERESATUTA MUY+BASTANTE INTERESADO/A	Ez oso+BATERE INTERESATURIK EZ NO MUY+NADA INTERESADO/A
EAE-KO POLITIKEI, ERAKUNDEEI ETA ABARRI BURUZ / SOBRE POLÍTICAS, INSTITUCIONES, ETC DE LA CAPV												
Oso informatuta (9-10) / Muy informado/a (9-10)	5	4	5	6	1	7	5	6	2	6	4	5
Nahikoa informatuta (6-8) / Bastante informado/a (6-8)	54	56	52	62	58	52	42	46	58	64	61	48
Zer bait informatuta (3-5) / Algo informado/a (3-5)	32	34	31	29	35	35	29	31	36	29	31	34
Batererik ez (1-2) / Nada informado/a (1-2)	7	5	8	2	7	5	15	12	4	1	4	10
Ed-Ee / Ns-Nc	2	2	3	0	0	2	9	5	0	0	0	3
Batezbestekoa (1-10) / Media (1-10)	5.8	5.8	5.8	6.2	5.6	5.9	5.5	5.6	5.7	6.3	6.2	5.5
EB-KO POLITIKA, ERAKUNDE ETA ORGANISMOEN BURUZ / SOBRE POLÍTICAS, INSTITUCIONES Y ORGANISMOS DE LA UE												
Oso informatuta (9-10) / Muy informado/a (9-10)	1	1	1	0	0	0	4	2	0	0	1	0
Nahikoa informatuta (6-8) / Bastante informado/a (6-8)	22	21	22	27	17	20	24	22	18	24	31	12
Zer bait informatuta (3-5) / Algo informado/a (3-5)	54	57	51	58	54	61	40	49	60	55	56	51
Batererik ez (1-2) / Nada informado/a (1-2)	21	18	23	14	28	16	23	22	21	20	12	32
Ed-Ee / Ns-Nc	3	3	3	1	0	3	10	6	0	1	0	5
Batezbestekoa (1-10) / Media (1-10)	4.2	4.3	4.1	4.5	3.8	4.2	4.4	4.3	4.0	4.2	4.7	3.6
